



# Arroitaonandia (-a) etxebizitza

Aldaerak: Onaindi / Arroitaibe / Arroitaibeti / Askarreta / Onandia  
Ahozkoa: Ónandixte



43° 9' 23"

2° 33' 56"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

“... la casa llamada Arroitaonandia... en la cofradía de Murgoiño en Berriz ocupa una planta solar de ochenta y siete estados cuadrados, equivalentes a tres áreas y treinta y un centiáreas con inclusión de los aleros...”

DJE 6/10 or. (1890)

Topatutako lehen arrasto dokumentala 1659koa da: *Arroitta Onandia* (BAHP, A417/32). Bertan, Murgoiño kofradiaren baitan agertzen den baserri bati erreferentzia egiteko erabiltzen da izen hori. Beraz, XVII. mendetik aurrera, baserri honen inguruko aipuak aurkituko ditugu dokumentazioan. *Done Joanes* ermitara doan bide bazterrean kokatzen da baserria, *Arroita* moduan ezagutzen diren beste bi baserriekin batera: *Arroita (Ikus Arroita)* eta *Arroitauregi (Ikus Arroitauregi)*. Antza, aipaturiko hiru etxe horiek osatzen duten multzoa *Askarreta* moduan ezagutzen zen garai batean. Horrela, 1868ko jabego-ekritura batean izen hau aurki dezakegu: *Askarreta onandia* (1868, DJE, 2/ 154. or.). Etxearen aurrealdean beste eraikina dago,

auzotarren artean *Etxetxikia* izenez ezagutzen dena (**Ikus Arroitaetxetxikia**).

XIX. mendean zehar, egiturak sinplifikatzeko eta soiltzeko joera izan zen, eta horrela igartzen da baserri etxe honetan, guttiz apurtzen baitu fatxadaren erdialdea indartzeko ordura arteko ohitura. Hala, ateburudun sarrera eta gaineko balkoia ere alboan kokatzen dira. Leihoen antolamendua, ostera, betikoa da: neurri berekoak denak ganbarako alboetakoak izan ezik, txikiagoak direlako. Azkeneko berriztatze-lanetan harlangaitza desestali diote, jatorrian harriz estalita, luzituta eta pintatuta zegoena lau izkinetan izan ezik, horko harlanduek argi uzten duten moduan.

## toponimia

Arroitauregi etxearen kasuan bezala, auzo-izenaz + etxearen izena egituraz osatuta dago toponimoa. Bizkaian, bereziki Durangaldean, oso arrunta da egitura hori, eta horrela sortu ziren Euskal Herriko deiturarik luzeenak. Kasu honetan, “beste aldean dagoena” adierazi nahi du. Horrelako izen luzeak laburtu egiten dira, eta auzoaren zatia ez da erabiltzen, antzekoa den beste batetik berezi behar ez bada. Horiez gain, beste izen bi baditu: Arroitaibe edo Arroitaibeti eta Askarreta Onandia. Arroitaibe eta Arroitaibeti izenak beste etxeekiko kokapena deskribatzen du, beherago baitago; aitzitik, izen hori XX. mendekoa da. Azkenik Askarreta izenez ezagutzen da jatorrizko Arroita gunea. Azkarra edo askarra zuhaitz txikia da, *Acer campestris*, hain zuzen ere, eta egun urria bada ere, oso zabaldua egon da Bizkaia osoan.